



13/2022 TXOSTENA, URRIAREN 21EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN OSOKO BILKURARENA

XEDEA: DEKRETUA, EUSKARA TITULUEN ETA ZIURTAGIRIEN ERREGISTRO BATERATUA SORTU ETA ARAUTZEN DUEN URRIAREN 16KO 222/2012 DEKRETUA ALDATZEKO.

I.- AURREKARIAK.

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak, 2022ko irailaren 22an, Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua (ETZEB) sortu eta arautzen duen urriaren 16ko 202/2012 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari buruzko txostena eskatu zion Batzorde honi.

Espedientea prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetu da (erreferentzia: DNCG_DEC_306/21_11).

II. – AURRETIAZ KONTUAN HARTZEKOAK. TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Hasteko, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 3.1 artikulua xedatzen duenez, «xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak».

Hala, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatu araua-proiektuari buruzko txostena egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluko a) apartatuaren a. letran xedatutakoari jarraikiz.

«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.



Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1.– Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak. ...»

Xedapen-proiektua denez, eta xedetzat ez duenez sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluekin bat, txostena onartzeko eskumena Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio.

III. – EDUKIA.

Dekretu-proiektuaren testuak artikulua bakarra du, eta artikulua horrek Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua sortu eta arautzen duen urriaren 16ko 222/2012 Dekretuaren xedapen-zatiko 11 artikuluetatik 9 aldatzen ditu.

IV.- JURIDIKOKI KONTUAN HARTZEKOAK.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 26. artikuluen 1. eta 2. apartatuen arabera, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen kontratazio publikoaren arloko organo aholku-emaile espezifiko, dekretu honen 2. artikuluen irismen subjektiboarekin. Halaber, aholku-funtzioa gauzatzen du, baita kontratazio publikoaren arloan indarrean den araudiaren arabera esku hartu behar duen jarduketak koordinatzekoa eta betetzekoa ere, enpresen sailkapen-funtzioez gain.

Aipatu esparru subjektiboari dagokionez, 2. artikuluen arabera, dekretu honetan xedatutakoa aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeei. Sektore publikoa zehazten da Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 8. eta 9. artikuluan.



Horrela, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 8. eta 9. artikuluek honako hau ezartzen dute:

«8 artikulua. *Administrazio orokorra eta instituzionala.*

1. *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra da lurralde-entitate bakarra gainontzeko entitateak mendean eta atxikiak dituena. Entitateok, bestalde, lege honetan ezarritako sailkapenaren arabera dagokien pertsonifikazio juridikoa hartu beharko dute.*

2. *Hurrengo ente instituzional mota hauek daude Administrazio instituzionalaren barruan; denek erabil ditzakete ahal publikoak:*

a) *Organismo autonomoak.*

b) *Zuzenbide pribatuko ente publikoak.*

9. artikulua. *Sektore publikoari atxikitako edo lotutako entitate instrumentalak.*

1. *Honako hauek osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa: Autonomia Erkidegoko Administrazio orokor eta instituzionalaren barruan dauden entitateek eta haien sektore publikoko ente instrumentalek. Hauek dira azken horiek:*

a) *Sozietate publikoak.*

b) *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioak.*

c) *Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko partzuergoak.*

2. *Erakunde horiek denek nortasun juridiko propioa izango dute, gainerako erakundeek dutenaz bestelakoa».*

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua sortu eta arautzen duen urriaren 16ko 202/2012 Dekretua aldatzen duen dekretuaren testuari dagokionez, 4.2 artikuluari c) letra berri bat gehitzen zaio:

«c) *Sektore publikoko kontratazioaren eremuan euskararen ezagutzari dagozkion hizkuntza-kaudimeneko baldintzak betetzen direla ziurtatzea. Kasu horietan, erakundea administrazio publikoa bada, ez da beharrezkoa izango, halaber, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, interesdunei aldez aurreko baimena eskatzea Erregistro Bateratuan sartu ahal izateko; gainerako erakundeen kasuan, eragindako pertsonak zalantzarik gabeko baimena eman beharko diote kontratazioaren ardura duen erakundeari, erakunde horrek kontsulta egin ahal izan dezan Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan».*



Kontratazio publikoaren arloan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen organo aholku-emaile espezifikoa Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea da, aipatutako 26.1 artikuluan jasotzen den bezala.

Alde horretatik, dekretu horren 27. artikulua b. eta c. apartatuek ezartzen dutenaren arabera, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari funtzio hauek dagozkio, bestek beste:

«b) Kontratazio publikoan xede hauetarako neurriak hartzeko proposatzen diren mekanismoen informatzea:

- Helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagozkionak bermatzea, alor horietan eskumena duten erakundeek proposatuta.*
- Kontratazio publikoan enpresa txikien eta ertainen ekintzaitza eta parte-hartzea sustatzea, alor horretan eskumena duen sailak proposatuta.*
- Kontratazioaren alorrean diharduten eragileek gizarte-erantzukizuneko politikak gehi edo gara ditzaten bultzatzea.*

c) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek kontratazio publikoaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera hori kontratazioa kudeatzeko mandatua duten Eusko Jaurlaritzako zuzendariek edo sektore publikoko gainerako erakundeetako legezko ordezkariak egin behar dute, idatziz. Aholku Batzordearen eskumenekoa da, halaber, interes ekonomikoak eta profesionalak dituzten elkarteak eta erakundeek kontratazioaren alorrean haren irizpena eskatzen duten gaiei buruz informatzea; irizpen-eskaera organo ordezkariak egin behar du».

Horregatik guztiagatik, uste dugu aipatu aldaketak, 222/2012 Dekretuaren 4.2.c) artikuluan aurreikusitakoak, urratu egiten dituela Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen eskumenak, eta, beraz, proposatzen dugu 4.2 artikulua c) letran xedatzen dena kentzea edo birformulatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzen duen uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikulua b) eta c) apartatuetan adierazitakoa errespetatuz.

V.- ONDORIOAK.



Azaldutakoagatik, eta hemen egindako zehaztapenak eta oharrak aintzat hartuko direlakoan, Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratua sortu eta arautzen duen urriaren 16ko 202/2012 Dekretua aldatzeko proiektuaren aldeko txostena eman da.